

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

*Iragarkia*

Jendaurreko epea igaro eta erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez, behin betiko bihurtu da 2024ko azaroaren 21ean egindako osoko bilkuran onartutako ordenantza fiskala, bisita gidatuen zebitzua emateagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duena.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Euskal Autonomia Erki-degoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, Bilbon, bi hilabeteko epean, ordenantza Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Arrasate, 2025eko urtarrilaren 21a.—Lehendakaria. (446)

*Bisita gidatuen zebitzua emateagatik ordaindu beharreko tasaren Ordenantza Fiskala.*

BISITA GIDATUAK

I. XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, ezarri eta exijitzen ditu zebitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

*2. artikulua.*

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

*3. artikulua.*

Zergagaia Administrazio Lokalaren aldetik bisita gidatu zebitzua emateak sortzen du.

III. SUBJETU PASIBOA

*4. artikulua.*

1. Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjeto pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 36. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zebitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2. Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira 2/2005 Foru Arauan izendatutakoak.

DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

*Anuncio*

Transcurrido el plazo de información pública reglamentaria sin que se haya presentado reclamación, ni observación alguna, se ha elevado a definitivo el acuerdo inicial adoptado en sesión plenaria celebrada el 21 de noviembre de 2024, sobre la aprobación de la ordenanza fiscal reguladora la tasa por las visitas guiadas.

Contra el presente acuerdo los interesados podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de la publicación de la ordenanza en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Mondragón, a 21 de enero de 2025.—La presidenta. (446)

*Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por la prestación del servicio de visitas guiada.*

VISITAS GUIADAS

I. DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*

Esta Entidad Local, de acuerdo con la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, establece y exige tasas por la prestación de los servicios y la realización de la actividades que se recogen en el anexo, en los términos de la presente Ordenanza, de las que aquéllas son parte integrante.

*Artículo 2.*

La Ordenanza se aplica en todo el ámbito territorial de la Entidad Local.

II. HECHO IMPONIBLE

*Artículo 3.*

Constituye el hecho imponible la efectiva prestación del servicio de visita guiada.

III. SUJETO PASIVO

*Artículo 4.*

1. Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 36 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que soliciten los servicios o actividades o que resulten beneficiadas o afectadas por aquéllos.

2. Tendrán la condición de sustitutos del contribuyente los definidos en la Norma Foral 2/2005.

5. artikulua.

Tasak ordaintzera behartuta daude:

- a) Partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

6. artikulua.

Ordenantza honetatik eratorzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonen ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua.

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. OINARRI EZARGARRIA

8. artikulua.

Oinarri ezargarri zerbitzua gauzaten den unitate bakoitzak eraten du, eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA

9. artikulua.

1. Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, eranskinean ezarritakoaren arabera.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua.

1. Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua.

Administrazio Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagozkion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorraren jasotakoa aplikatuko da.

X. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere eranskina, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du.

ERANSKINA

1. «Ezagutu Debagoiena» egitarauaren barruan egindako bisitak:

- Egun erdiko bisitak: 1,5 €/pertsona.
- Egun osoko bisitak: 2,5 €/pertsona.

Artículo 5.

Están obligados al pago de la Tasas:

- a) En el caso de servicios o actividades realizados a solicitud de los particulares, quienes lo soliciten.

Artículo 6.

Junto al sujeto pasivo responden de las deudas tributarias que se deriven de esta Ordenanza las personas que en su caso se mencionen en las normas de aplicación de la Tarifas.

IV. EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES

Artículo 7.

La concesión de exenciones u otros beneficios fiscales se sujetará a lo que se establezca en las disposiciones generales de aplicación.

V. BASE IMPONIBLE

Artículo 8.

Constituye la base imponible cada una de las unidades en que se materialice el servicio, en los términos contenidos en el anexo.

VI. CUOTA

Artículo 9.

1. La cuota tributaria consistiría, conforme a lo establecido en el anexo, en la cantidad resultante de aplicar una tarifa, una cantidad fija señalada al efecto, o la cantidad resultante de la aplicación conjunta de ambos procedimientos.

VII. DEVENGO Y PERIODO IMPOSITIVO

Artículo 10.

1. La tasa se devenga cuando se realiza el servicio o actividad.

VIII. LIQUIDACIÓN E INGRESO

Artículo 11.

Por la Administración Local se practicará la liquidación que proceda por cada concepto, ingresándose la cantidad liquidada en metálico conforme a las normas particulares de cada exacción contenidas en el anexo.

IX. GESTIÓN DE LAS TASAS

Artículo 12.

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de las Tasas reguladas por esta Ordenanza, así como la calificación de las ifracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

X. DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza, con su anexo, entrará en vigor a partir de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y seguirá vigente hasta que se acuerde su modificación o derogación.

ANEXO

1. Visitas guiadas dentro del programa «Ezagutu Debagoiena»:

- Visitas de ½ día: 1,5 €/persona.
- Visitas de un día: 2,5 €/persona.

2. Arantzazuko Santutegiko bisitak.

Bisita bakoitzeko:

- Tarifa orokorra: 4 €/pertsona.
- 0 urtetik 6 urtera: Dohain.
- 16 urtez beherakoak: 1,5 €/pertsona.
- 10 lagunetik goragoko taldeak (nagusiak): 2 €/pertsona.
- 10 lagunetik gorako taldeak (umeak 6-16 urte): 1,5 €/pertsona.

Ezarrিতাকo orduetatik kanpoko taldeak bisitan datozenean, gutxienez 24 € kobratuko zaizkie taldeko.

2. Visitas del Santuario de Aránzazu.

Por cada visita:

- Tarifa general: 4 €/persona.
- 0 a 6 años: Gratis.
- De 7 a 16 años: 1,5 €/persona.
- Grupos a partir de 10 personas (adultos): 2 €/persona.
- Grupos a partir de 10 personas (niños de entre 6-16 años): 1,50 €/persona.

En el caso de visitas de grupo fuera del horario fijado, se cobrará un mínimo de 24 €/grupo.